

113. zk.
2002ko maiatza



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



Frankeo itundua 48/27

eta Gasteizek dio...



	Maiatzak 20	Maiatzak 21	Maiatzak 22	Maiatzak 23	Maiatzak 24
10:30	ITZIAR REKALDE Ipuin emanaldia Araba aretoa		ERIZ MAGOA Aldabe Gizarte Etxea		ARRABALERA Antzerki Taldea Goiuri Jauregia
16:30	ITZIAR REKALDE Ipuin emanaldia Araba aretoa		8812 Plataforma "Etxebizitza negozioa edo eskubidea" Hitzaldia Goiuri Jauregia		
17:30		MASKARADA Antzerki Taldea Kontenedore baten istorioak Aldabe Gizarte Etxea		PILAR CASARES Euskararen kontseiluko kidea Euskararen Behatokia Hitzaldia Goiuri Jauregia	
20:00		KIRMEN URIBE, TXOMIN URIBE ETA JOSU ARANBARRI "Bitartean heldu eskutik" Poesia emanaldia Florida Kultur etxea		MAIXA ETA TALDEA "Sentitzen naiz" disko berriaren aurkezpena Araba Aretoa	"DANTZA PLAZA" EMANALDIA Matxete Enparantza

**Aste osoan zehar "Arabako Euskal hotsak-Antecedentes del Euskera en Alava"
(Historian zeharreko Arabako euskararen garapena) erakusketa ikusgai Gasteiz Euskaltegian**

Etenalditxo honen ostean

ARABAKO EUSKAL HOTSAK-ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA ERAKUSKETA IBILTARIAK

aurrera darrai:

GASTEIZ: IKA-KO ASTE KULTURALA:

Maiatzaren 20tik 23ra

(astelehenetik ostegunera bitartera, egun osoz)

Errege-erregina Katolikoak kaleko euskaltegian

DURRUMA DONEMILIAGA:

Maiatzaren 24tik Ekainaren 1era

IRURAITZ GAUNA:

Ekainaren 1etik 7ra

113 zk. 2002ko maiatza

2. ORR.:
IKA-KO ASTE KULTURALA

4-6. ORR.:
ZIZKA-MIZKAK. HILEKO GAIA: ARABAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA-2002 (III)

7. ORR.:
GEUgune

8-9. ORR.:
LITERATURA

10-11. ORR.:
KONTURIK KONTU

12-14. ORR.:
AUZOAK ELKARLANEAN

15-17. ORR.:
SELEKTIBITATEA. HEZKUNTZA SISTEMA.
IKASLEAK MINTZO

18. ORR.:
EUSKARAREN ESKUBIDEEN ALDEKO JENDE KATEAK

19. ORR.:
GEU ALDIZKARIA EUSKALTEGI, IKASTOLA, ESKOLETARA

20-21. ORR.:
UDAL HAUR ESKOLAK: EREDUEN AFERA

22-24. ORR.:
EMAKUMEEN PROSTITUZIORANTZ HURBILDUZ

25-27. ORR.:
DROGAK AZTERGAI AI LAKET taldearekin

28-29. ORR.:
AEKrekin ARANTZARA

30-31. ORR.:
DOCTOR DESEO

32-33. ORR.:
Zeuk aukeratu!

34. ORR.:
TINK (Iñigo Sarasolaren komikia)

36. ORR.:
ARABA EUSKARAZ gero eta gertuago




15-17. ORR.



22-24. ORR.

Apirilean argitaratu Emaize Sexologia elkartearen artikuluan akats bat dago: EROTIKA hitza ("Gure erotika",...) da zuzena eta ez EROTISMOA ("Gure erotismoa",...), kontzeptu desberdinak baitira



AGUR OGETA

"Pilota zerbait baldin bada herriko jolasa da, ohitura"

(GEU aldizkaria, 2000ko otsaila)



GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es


Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Aldizkariko batzordea: Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. Testuen orrazketa-zuzenketak: E.B. Maketa: Dalvez. Marrazkiak eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzian: Ernesto Murillo 'Simonides'. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorrazkin eta Itziar Glz. de Zarate. Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 .

Frankeo Itindua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzikizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila



Arabako Foru Aldundia Kultur Saila



CAJALANBIA

ARABAKO

Hileko gaiak

BERTSOLARI TXAPELKETA. 2002

ADRENALINA PURI-PURIAN ARABAKO TXAPELKETAN

Jaun-andreok, aletik alera izan ohi den tarte honetan gauza ugari pasa dira, Palestinan gertatzen ari den basakeria kasu, baina hori ez da dena. Izan ere, Arabako bertsolari txapelketak aurrera darrai eta bi saioaren azterketa egitera gatzokizue, Lapueblako kanporaketa eta Aramaioko finalerdia.

Lapueblako saio erabakiorra

Gauza asko erabaki ziren Lapueblan, haien artean final erdietara pasako ziren bertsolarien izenak. Oholtza gainera bertaratuak Ane Zelaia, Rikardo Glz. de Durana, Karla Santisteban, Alberto Mtz. "Betto", Olatz Perea eta Manex Agirre izan ziren. Oro har multzo polita bildu zen hauen lanak txalotzeko, 60 lagun inguru. Saioak izan zuen zeresanik, Manexen potoa kasu. Baina hau ez zen oztupo izan Rikardori orpoak zapaltzen ibiltzeko, bigarren postu batean. Ane Zelaiak berriz, hasi berria izan arren, esatekorik bazuela ederto erakutsi zuen. Karlak, Bettok eta Olatzek saioaren norabideari eusten jakin izan zuten, nahiz eta urduri ibili.

Kanporaketa saio honen ondoren final erdietan kantatuko zutenen izenak jakinarazi zizkiguten:

ARAMAIOKO FINAL ERDIAN

MANEX AGIRRE
ANDERE ARRIOLABENGOA
RIKARDO GLZ. DE DURANA
RUBEN SANCHEZ
ZIGOR ENBEITA
ASIER OTAMENDI

ARAIKO FINAL ERDIAN

OLATZ PEREA
OIHANE PEREA
JUAN MARI JUARISTI
ALBERTO MARTINEZ "BETTO"
IÑAKI VIÑASPREE
IRATI ANDA



LEHENENGO FINAL ERDIA: TXAPELDUNA TXAPELDUN

Giro ederra Aramaion, 130 lagun kultur etxean, batez ere han kantatzen zuten bertako bik erakarrita. Txapelketako saio tipikoa izan zen, hasieratik bukaerara erregular xamarra, distira askorik ez, baina akatsak ere urriak. Hala ere egon zen aipatzekorik, Zigorren puntu erantzuna kasu: "Berpiztu nahi al duzu / behin hil eta gero" "ez nago Jesucristo zena bezain ero". Izenburuan aipatu bezala Otamendik iaz txapela jantzitzearen zergatiak ederto erakutsi zuen berriro ere, batez ere segurtasunagatik. Rikardok oso saio ona egin zuen, umore aldetik zertzelada politik emanaz. Manex inseguro ibili zen (konpresa faltan itxura denez) eta Zigor eta Rubenek ez zuten daukatena erakutsi. Besterik gabe hona hemen saioaren sailkapena:

1. ASIER OTAMENDI
2. RIKARDO GLZ. DE DURANA
3. MANEX AGIRRE
4. RUBEN SANCHEZ
5. ZIGOR ENBEITA
6. ANDERE ARRIOLABENGOA

Orain azkeneko emaitza jakitea besterik ez zaigu geratzen, finalekoa alegia. Dena dela, finalaren aurretik badago beste saiorik,

hona hemen egutegia:

- Izan zitekeen finala: Maiatzak 7 Parral tabernan: Olatz Perea, A. Arriolabengoa, Inaki Vinaspre, "Betto" Martinez, Zigor Enbeita eta Irati Anda finalera pasa ez diren bertsolariekin.
- Finala: Maiatzak 11, Printzipal antzokian: Oihane Perea, Asier Otamendi, Manex Agirre, Ruben Sanchez, Ricardo Glz de Durana eta J.M. Juaristi
- Kanpezuko errebantxa: Egon adi hau oraindik zehazteke dago eta.



Ez egin hutsik finalera ezta gainontzekoetara ere !!

Arabako Bertsolari Txapelketako final erdiak

ARAIKO KANPORAKETAN JUAN MARI JUARISTI ETA OIHANE PEREA FINALERAKO SAILKATURIK

Apirilaren 20an, larunbata, izan zen Araiako Andra Mari aretoan Arabako Bertsolari Txapelketako finalerdietako bigarren saioa ehunen bat bertsozaleren aurrean. Bertan Juan Mari Juaristi, bertso esanguratsu eta betegarri gutxikoen bidez, nagusitu zitzairen beste bost bertsolariei. Oihane Perea bigarrena izan zen merezimendu osoz.

Saioari buruz eta bertsolari guztien jarduerari buruz azpimarratzekoa da parte hartzaileen azkartasuna eta bertso askoren freskotasuna eta indarra. Iñaki Viñaspre gaztearen saioa ere nabarmendu dezakegu, aurten egin duen progresioa berretsi baitzuen Araiain. Hauxe da Araiako final erdiko puntuazioa eta sailkapena:

1. Juan Mari Juaristi	202,5
2. Oihane Perea	198
3. Iñaki Viñaspre	188,5
4. Alberto Martinez:	184,5
5. Irati Anda	182
6. Olatz Perea	167,5

Honenbestez, eta Aramaion egin zen beste final erdia kontuan harturik, hauexek dira maiatzaren 11n Principal Antzokian izango den finalerako sailkatu diren sei bertsolariak:

1. Asier Otamendi	217,5
2. Rikardo Glz. de Durana	202,5
3. Juan Mari Juaristi	202,5
4. Manex Agirre	198,5
5. Oihane Perea	198
6. Ruben Sanchez	196

Bestalde, datorren ostegunean, apirilaren 25ean, Asier Otamendi, lehenengo sailkatua, bigarren, puntutan berdirurik, geldtu diren Rikardo Glz. de Durana eta Juan Mari Juaristi, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin batera bertsoan arituko dira Gasteizko Floridako Kultur Etxean arratseko 7etan.

Final erdietan parte hartu eta sailkatu ez diren bertsolariak beren aukera izango dute maiatzaren 7an, asteartea, arratseko 8:30etan Gasteizko Perral tabernan egingo den "Izan zitekeen finala" izeneko saioan.

FINALA

Maiatzaren 11n • 19.00etan
Gasteizko Principal Antzokian

araba bixotzian



SIMONIDES

ikusi-makusi




ARTIUMen atepak zabalik erlojupeko lasterketan

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin



12A 02/14

Gasteiz, 2002 / 4

Garai honetan aza-tximeletaren (*Pieris brassicae*) lehenengo belaunaldia; beste tximeleten kasuan bezala, esparru berrien bila zabaltzen da.

Hemendik aurrera atal hau finkoa izango da gure orrietan: zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula...? Eskola partikularren berri eman nahi duzula? Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten bila zabiltzala...? **HEMEN DUZUE EUSKARAZ EGITEKO AUKERA!!!** (Telefonoz edo posta elektronikoaren bidez)

GEU AZOKA

* Geu Azoka-ko iragarkiak alez ale berritu behar dira, hots, ale batean zerbait iragarri eta hurrengo alean ere argitaratzea nahiko bazenute, deitu edo posta elektronikoaz jakinarazi.

SALMENTAK-ALOKAIURUAK

UMEAK-ETXEKOLANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANA

• Ekainean euskarazko errefortzu klaseak (5 - 15 urte bitartean) ematen dira.

Ane, 696 011 868

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsaldez, gauetz, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

EGUN OSOZ • GOIZEZ • ARRATSALDEZ • GAUEZ • ASTEBURUAK

KULTUR ERROTA-02

(GEU elkartearen eskutik)

MAIATZAREN 28an, asteartea,
20.30etan

PARRALEN

RAMON AGIRRE:

**'ONDO ESAN
BEHARKO'**

**espektakulua - umorea
musika - antzerkia**

• Mintzalaguna egitasmoari, **adi!**: Euskaraz hitz egin, jende berria ezagutu, ondo pasatu nahi duzula? Deitu Elkartera (Josunez galdetu) eta aukera izango duzu! Astindu lotsa eta deitu 945222153 telefono zenbakira (zenbat eta lagun gehiago, orduan eta talde desberdinak egiteko aukera gehiago).

SAIL BERRIA, SAIL BERRIA, SAIL BERRIA, SAIL BERRIA
**EUSKALGUNE,
TOPAGUNE!**

GEUREKIN MENDIRA

MAIATZEKO IRTEERA

**Adi irteera tokiaren aldaketari!!!
BALERDI**

MAIATZAREN 19an

IRTEERA: goizeko 9.00etan, MARIA-NISTAS ikastetxearen aurrean (Luis Heinz kalea).
EGUN OSOKOA

Informazio gehiago: Kike, 945140158

*Eta BAGARE eta EUSKARAZ BIZI taldeekin batera:

MENDAUR (Nafarroa)
Ekainaren 8-9ko asteburuan

Adi egon!!!

GEU elkartearen posta elektronikoa:
geuelkarte@grn.es
Gogoratu aldizkariarena:
geugaste@grn.es



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
*"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"*



Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 · Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza · GASTEIZ



ELKARLANEAN

Errautsen distira

Egilea: Xabier Mendiguren Elizegi

Bilduma: Literatura 219

Orriak: 148

Data: 2002ko apirila

Gure herriko historia petralarekin korapilatzen diren lau istorio idatzi ditu Xabier Mendiguren Elizegik, ipuin luzearen eta nobela laburraren artean dauden lau kontakizun indartsu.

Neska kazetari batek ligatze-ko asmotan joko du ondoko herrira, baina gerrako pasadizo bat kontutuko dion alarguna topatuko du bertan ("Antxiñako fotografia"). Komentu ilun batean, fraide espainolisten eta abertzaleen artean aspaldi gertaturiko misterio eta



heriotzak argitu nahian hasiko da ahaide urrun bat ("Aita Morlans itzuli da"). Lagun baten aitona gudariarekiko mirespenak eta neska baten maitasunak Nikaraguako iraultzara eraman zuten gazte bat, baina handik itzultzean ohartuko da nola aldatzen diren gauzak, kamarada ("Zapero, gogoan zaitugu"). 36ko gerratik ETaren su-etena bitartean, Francoren kontrako erresistentziatik eta trantsizio istilutsutik pasata, bere bizitzako nahi eta ezinak gogoratuko ditu Banco de

Vasconiako enplegatu txepelak, Iruñetik jaioterrirako bidaian ("Biziak ez zuen txoria balio").

Sarreran egileak argitzen digunez, "bestela irudi badezake ere, gutxi idatzi dugu euskaldunok 36ko gerrari buruz, oraintsu arte bederen. Hitz egin ere, esango nuke etxe frankotan ez dugula askorik egin, ez behintzat izan duen eraginaren neurrian. (...) Liburu honetako lau ipuinek ahozko kontakizunak dauzkate oinarrian, eta hauen atzean, berriz, egiazko pasadizoak daude; gerrari buruzkoak gehienbat, eta gerraostean kokatua bakarren bat. (...) Oinarri egiazko hori itxuraldatu egin dut hala ere, batzuetan gehiago beste batzuetan baino, eta, denetan ere, aspaldiko kontutak bere hartan eman ordez, gaur egungo istorio baten barruan sartu ditut."

Errautsen distira da antzinako borrokatik geratzen den ia bakarra, baina haren argi ahulak berotu ditzake oraindik ere gure bihotzak, literatura bihurtuta.

Xabier Mendiguren Elizegi (Beasain, 1964). Filologian lizentziatua eta editorea. Haur-literatuta eta antzerkiko lanez gain gazteentzako kontakizunak idatzi izan ditu: Tangoak ez du amaierarik, Harrika, Patakak, Irakasle alu bat, Obsexuen kluba, Kanibalaren kaiolan, Txakurraren alaba. Helduentzako narratibetan, berriz, Sei ipuin amodiozko, Hamalau, Opor ezberdinak, Ene dama maite hori ipuin-bildumak, Bekatuaren itzala eta Berrito igo nauzu eleberririk, eta oroitzenak lanzen dituzten Gure barria 1975, Nerabearen biluzia eta Errekarteko koadernoak.

azkarprint
inprenta / inprimategia

Helbide berria....

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Zure begiak, gure kontu

PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurria, hurbila eta saiatua.

Horixe duzu gure konpromisoa.



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

MAIATZEKO ELKARLANEAN LEHIAKETA

GALDERA:
Zer esan nahi du
"ARIAN-ARIAN XEHETZEN
DA BURNIA"
esaerak?

**BIDALI ERANTZUNA
POSTAZ EDO E-POSTAZ,
eta ZORTE ON!**

Pedro Asua kalea, 2 - 3.a
01008 Gasteiz
geugaste@grn.es

**APIRILEKO ELKARLANEAN
LEHIAKETAren**

IRABAZLEA:
**GARAZI ORNAT
SAEZ DE GORDOA**
(Harry Potter saileko
hirugarren liburua)
ZORIONAK!

GALDERA: Nola esaten
da euskaraz "Como pez
en el agua"?


ERANTZUNA: "Nor bere
saltsan" "Oso gustura"

JEAN FRANÇOIS SAURÉ ARGITARATZAILEAREN ESKUTIK:

Mexikotik barrrena

“Ez zuen batere hotzik egiten eta euririk ere ez. Giro aproposa hondartzan lo egiteko. Hondar artean etzan eta hantxe egon zen Inazio, badiako ikuskizunari begira. Hura bai zela ederra! Txundituta zegoen. Eguzkia itsasoan ezkutatu ahala laranja-horixka kolorea hartzen hasi zen eta itsaso urdin ilunean egiten zuen erreflexua zoragarria zen. Naturak debaldeko ikuskizun hura eskaintzen zuen, bere edertasunaren erakusgarri. Eguzkia ezkutatzeaz batera izarrak nagusitu ziren; argi zuriz bete zen zeru osoa. Izarren izpi indarge haiek badiari argitasun berezia eman zioten. Hura ederra baino gehiago magikoa zen. Gau hartan, oso amets bereziak egin zituen Inaziok”.

**Gurutz Garmendia Osinalde
Marrazkiak: Iban Astondoa Altuna
IV SAGITARIO SARIA
Bidaiari handien Literatur Lehiaketa
ARAMAIOKO UDALA**



Sherlock Holmes eta kirol arriskutsuetako elkarteak

**KOMIKIA - Nicolas Barral eta Pierre Veys
Itzultzailea: Bego Montorio**

"Sherlock Holmes ez da ezeren beldur. Laster itzuliko da"

EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

KULKI

www.kulki.org



GORETTI ILEPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ



★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • Tfno: 945 430 073

MARRAZKIAK & KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

BARRAL TABERNA

Egunditan, astalehenetik ostiralera

JANTOKI BEGETARIANOAK

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.- 945 27 68 33



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

SAHARAR emakumeei elkartasuna GASTEIZTIK, EUSKAL HERRITIK



Testua eta argazkiak: Itziar Glz. de Zarate

'Otsailak 27' (Emakumeen Eskola) deritzan Errefuxiatuen Kanpamentuko saharar emakume eta gizonekin *Jaima* eta jana partekatzen izan naiz zenbait egun. Arrazoia, emakumeen alde agertzea, zeinek 5 urtero egin ohi den Emakumeen Nazio mailako IV. Kongresua gauzatzen baituzten.

Ezereza eta guztiaren erdian saharar emakumeek hiriak atondu dituzte, non haur eta gizonekin bizi diren. Sentitzeko tokia da; tea egiteko presatuta zeuden txingarretan *Buchrak* jarri ohi zuen intsentsuaren usaina; haizea eta harea aurpegian; *Fatimaturen*, gure laguntzaile liluragarriaren, esku abegitsuak, eta emakume ororenak; umeen begiak (*Dunia, Naishma, Taher...*); baita euria ere basamortuan bertan, zenbait orduz goian-behean zeriola, haurren poza eraginez -harea umelaz guretzat uda-koa den "gazteluak" egiteko jolasean ari zitezkeelako- eta aldi berean kezka helduengan, *Jaimak* eta pezozko etxeak urez bete ez zitezen.

Paisajea eta *Wilayak* (hiriak) nahas-



**BAR
KLAKÉ**

KVTXA, 2
TFNO.
143883 "GASTEIZ"




amtsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax.: 945 26 46 43



200.000 biztanle baino gehiagorekin, Gasteiz egunez egun handitzen ari zaigu. Garai berriei egokitu nahirik, bertan bizi garenon eskaera eta beharrei ahotsa jartzeko dieten auzo elkarten jardueraren etengabea hiriaren izaeraren ezaugarri garrantzitsua da. Eta, hainbeste jende artean, normala denez, jarrera eta pentsamolde aniztasuna ere gure hiria eta auzo mugimendua ezaugarritzen duen zerbait bada. Baina iragan otsailtik aurrera, desberdintzetik jarrerak erabat aldentzera pasa dira eta ezin esan daiteke, azkenengo boladan, gure auzo elkarten arteko harremana lasaia eta harmoniatsua izaten ari denik.



Ainhoa Ferron

Arg.: Edorta Sanz eta artxibo

U rte batzuetatik hona bi erakunde desberdin izan dira Gasteizko auzokide elkarten elkarlanerako tresna. Duela gutxi arte, hiriko auzo elkarte gehienak AAEFren (Arabako Auzo Elkarten Federazioa) barnean biltzen ziren. Horretaz gain, AAEFtik kanpo, Auzoartekoa (Interbarrios) izeneko erakundea, 20-25 auzo-ordezkarri ingururen batzar bat (AAEFko bilerak) dinamizatzeak zekartzan zailtasunei aurre egin nahirik, arazo amankomunak zituzten auzoen aldarrikapen eta ekimenei azkartasun eta eraginkortasun handiagoa ematen saiatzen zen.

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7
Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK



POBLEMATIKA



Garroak zabaltzen

Baina Gobernu talde berriak Udalaren gidaritza hartu zuenetik, giroa kirasten ari zen zenbait auzo elkartereki-ko jarrera axolagabeari lotuta; erabateko iskanbila AAEFren lehendakaritza berrirako hauteskunde prozesuan egon ziren irregularitasunen ondorioz etorri zen. Iragan otsailean polemikak eztanda egin zuenetik, Gasteizko auzo elkarten elkarlana eten egin da, AAEFak berak ere bere nortasuna galdu duelarik. Izan ere, aipatu gora-beheren ondorioz, Zazpigarren Alaba, Bizigarri, Judimendikoak, Errota Zaharra eta Gasteiz Txiki elkarteek erakundea utzi baitzuten, federazioa erabat herren utziz. Bost auzo elkarte hauetatik egiten den salaketa argia da: "Gasteizko Udalaren Gobernu taldeak eraginda", Adrian

Auzoartekoa

Ahots bakar eta berezitua

Polemika alde batera utzi eta jarrera kritikoz lan egiten jarraitu; horixe da gaur egun Auzoartekoa eratzten duten elkarten asmo sendoa, arazo amankómunak dituzten auzoen eskakizunak ahots indartsuagoak entzunak izan daitezten. Auzoartekoa honako auzo elkarte hauek osatua dago: batetik, bere garaian AAEF utzi zutenak -Bizigarri (Zaramaga), Zazpigarren Alaba (Aranbizkarra, Aranbide eta Aranzabela), Errota Zaharra, Judimendikoak eta Gasteiz Txiki (Alde Zaharra)-; eta, bestetik, jarrera kritikoz baina AAEFren barruan jarraitzea erabaki zuten Erreka Txiki (Santa Luzia) eta El Mineral auzo elkarteak. Alkateari zuzenean eskaerak egiteko Udalbatzarretara joan, edota auzoentzako udal aurrekontuei buruzko aldaketak proposatu, Auzoartekoa-tik aurrera eramaten ari den ekimenetako batzuk dira. Horien artean, garrantzitsu ere, erakundetik aldizkari berri baten sorrera bultzatu da. Argitalpenaren lehenengo aleak 2001eko urrian ikusi zuen argia. 20 orrialdetan, izenburu gisa auzo elkarte bakoitzaren izena daraman aldizkari honek edukin amankomun zein bereziak biltzen ditu, erakundetik bultzatzen ari diren kontuei buruz informatu, auzoetan gertatzen denaren berri eman eta hiri osoari dagozkion gaiak ere jorrazteko asmoz. Lan askoren buruan, bigarren alea kalera ateratzeko zorian dago jada.

HEGOALDE

Euskaltegia



Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARTEPAN



Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuen"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59



Ruiz de Austri lehendakari berriaren kandidaturari eutsi ziezaioten, bost auzo elkarte berriren sorrera bultzatu zen, zenbait auzoren kasuan aldez aurretik auzo elkarterik bazegoen arren. Zaramaga auzoan, adibidez, Iparralde izenpean, hiruzpalau pertsonak eraturiko elkar-tea sortu zen. Adurtzan edota Errota Zaharran ere antzekoa gertatu zen. Bost elkarte hauentzat asmoa zein den oso garbi dago: Udalak bere nahiak eta proposamenak aho batez onartu eta garatzen lagunduko duen tresna bihurtu nahi du AAEF.

Kontuak jarraitzen du

Gauzak horrela, AAEFren baliogarritasuna galdutzat eman eta aipatu auzo elkarteek berau uzteko erabakia hartu zuten.

Baina kontua ez da hemen bukatzen, apirilean bertan Alfonso Alonso alkateak elkarte berri horien sorreraren ondorio gisa ematen ari den elkarten bikoiztasunak dakartzan dirulaguntzak banatzeko arazoekin bukatzeko, era kategorikoa agertu baitu: dirulaguntza AAEFren barruan dauden elkartei besterik ez eman!! Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala...

Premiazko eskakizunak

Hauetara Auzoartekoa-ko elkarteek larrirentzat jotzen dituzten gabeziak:

Judimendikoak:

Parkearen berritzea: sarbide berriak, jolaserako zein paseorako eremu zabalagoa, zuhaitz ustelduen aldaketa....

Gasteiz Txiki:

Aparkalekuak eta garbitasuna zein segurtasuna bermatuko dituzten neurriak.

Bizigarri:

Trafiko guztia eta, batez ere, edukin toxikoen berbidetatzeko lanak.

Zazpigarren Alaba:

Aparkalekua eta trafiko jarria hobeto bidetatzeko lanak.

Errota Zaharra:

Bizilagunen bizi-kalitatea eta osasuna bermatzeko azpiegituraren beharra (Osasun Zentroa, Adinekoen egoitza, Atentzio Iraunkorreko Zentroa...) eta zabortearen gelditzea.

Erreka Txiki:

Aparkalekua

SELEKTIBITATEA. HEZKUNTZA SISTEMA

Kalitate legea, errebalida,... Informazioa, arren!



Humanitate dekretua, Kalitate Legea, LOU eta Lanbide Heziketako Legea. Egunero ikusten ditugu komunikabideetan Hezkuntza alorrean aldaketa garrantzitsuak ekarriko omen dituzten araei buruzko ezadostasun eta eztabaidak. Alderdi politiko, sindikatu eta administrazio-ko ordezkarien iritzia zein den badakigu, baina zertaz ari diren ere bai? Aldaketa horiek guztiak "sufrituko" dituzten ikasle eta gurasoek proposatzen dutenaren berri ba al dakite? Eta ados al daude?

PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

Garagardotegia

Ostiraletik
Igandera
IREKITA
(astelehenetik
ostegunera
itxita)

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

Leire Lopez de Aberasturi

Argazkiak: Edorta Sanz

Jon Iñigo Caudepon eta Asier Berzosa, Batxilergoko 2. mailako ikasleek datozen urteetan zuzenean biziko dituzten aldaketen inguruan gauza handiegirik ez dakitela aitortu dute hitz egiten hasi orduko. "Kritikak eta asko entzun dira, baina mamiaren berri" ez dutelako kexu agertu da Jon Iñigo, 17 urteko Olabide Ikastolako ikaslea. Asier Berzosa ikaskidea ados dago berarekin.

Kritiken oihartzuna jaso dutela ezagun da: "Esaten dute gero eta zailagoa izango dela DBH aprobatazea", azaldu du Jon Iñigok, eta Asierrek "bideak ixten dituzte unibertsitatera eliteto ikasleak baino ez sartzeko eta ikasketak oso ondo ez daramatenei beldurra sartzen diete", gaineratu du.

"Bideak ixten dituzte unibertsitatera eliteko ikasleak baino ez sartzeko"

Hautaketak

Jon Iñigo eta Asier ikastolako ikaskide gazteagoek beraiek baino "kezkatuago" egon beharko luketela uste dute, "azken finean gu unibertsitatera orain arteko modu berean sartuko gara", esan dute, Unibertsitatean ere lege aldaketak izango direla ahaztuta. Baina egia da errealizazio indarrean jarriko duen Kalitate legea 2004-2005 ikasturtean sartuko dela indarrean.

Orduan DBHko lehenengo eta bigarren urratsetan "ikasteko zailta-

sunak" dutenentzako gela bereziak eratuko dituzte, eta hirugarren mailan ibilbide desberdinak aukeratu beharko ikasleek; etorkizunean Lanbide Heziketa egin ala unibertsitatera joango diren egun baino bi urte lehenago erabaki behar izango dute nerabeek. Hirugarren kurtsuan berriro hautatu egin behar, adar zientifikoa, teknologikoa edo humanistikoaren artean bat hartzeko.

Aldaketen zioa "ahaleginaren kultura" berreskuratzea dela azaldu zuen Madrilgo Gobernuak, baina Jon Iñigo eta Asier ez daude ados planteamendu horrekin. "Irakasleak bultzatu behar du haurra ikastera, jarrera hori irakasleek sortu behar dute, azterketa piloa jartzen ez dut uste horrelakorik lortuko denik", esan du Jon Iñigok. Bere ustez gainera, "12 urteko haur bati ezin zaio eskatu ikasketak bere bizitzaren ardatza izatea".

Ikasgai guztiak gaiztatu ez dituz-

"12 urteko haur bati ezin zaio eskatu ikasketak bere bizitzaren ardatza izatea"

tenek kurtsua errepikatu behar izatea ere ez zaie ondo iruditzen: "DBHn ikasten ari den haur bat ez dago pertsona bezala guztiz osatua eta errepikatzen bultzatzea etorkizunerako aukerak kentzea da; ez zait bidezkoa iruditzen".

Azkenean, beraiek uste baino informazio gehiago daukatela dirudi, baina elkarrizketa amaitzeko, gurasoak beraiek bezain galduak daudela aitortu dute. Horregatik, "prestatu



Jon Iñigo Caudepon, Batxilergoko 2. mailako ikaslea

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
 KERAMIKA HERRIKOIA
 ETA BERRIA
 HEDEGILE kalea (Korreria), 120
 Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**JANTZI
 ETA
 OPARIAK**

 Aiztogile kalea (Kutzi), 27
 Tfnoa: 945 26 07 10
 GASTEIZ

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK
 San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
 Tfnoa.: 945 23 39 90

duten proiektu osoa ondo aurkeztu da egin behar dutena!”, aldarrikatu dute.

Ikasleak protagonista

Madrilgo Gobernuak unibertsiterako prestatu aldaketek ere ez dute adostasunik lortu eta kasu horretan, derrigorrezko hezkuntzan ez bezala, adin arrazoiengatik, ikasleek protagonismoa hartu dute alderdi politiko, sindikatu eta erakundeen aurrean. Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campusean ikasleen eskubideen alde lanean diharduten Ikasle Abertzaleak eta Ikasleen Sindikatua taldeek oso ongi definituta daukate dagoeneko LOU (Ley Orgánica de Universidades) delakoaren inguruko jarrera.

IAko Alex Marañonek azaldu duenez, bere taldeak lau puntutan laburbiltzen du legearen kontrako jarrera: “Madrildik inposatua, zentralista eta homogeneousatzailea, atzerakoia eta antidemokratikoa da”. ISko Sergio Moralek, berriz, puntu bat azpimarratu du: “Hasten ari den garai ekonomiko berriari begira, pribatizazioaren alde egin dute, langileen seme-alabek unibertsitatean ikas dezaten ekiditzeko”. ISak legearen erreformak unibertsitate “elitista eta akritikoa” bilatzen duela salatu du, eta IAKo

“Guztion artean Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta soziokulturala posible egingo duen legea egiteko”

ordezkaria ados dago: “Guztientzako eskubide bat izan beharrean batzuentzako zerbitzu bat izatea” lortu nahi dutela dio.

Alexek gainera PPko Gobernuak hezkuntza guztia bere neurrira arautu nahi duela uste du: “Lehenengo, Humanitateen Dekretua izan zen, gero Kalitate Legea eta LOUa, eta orain Lanbide Heziketari dagokiona; horrela ibilbide osoa hartuko dute eta gainera mamian, ikasten dena edo ikasi ahal denean, zentratuz”.



Asier Berzosa, Batxilergoko 2. mailako ikaslea

Euskal LOUa

Eusko Jaurlaritzak unibertsitatea arautzeko lege propioa egingo duela iragarri zuen Anjeles Iztueta, Hezkuntza sailburuak eta 2002. urte amaierarako prest egongo zela agindu. Honi buruz iritzi ezberdinak dituzte Alexek eta Sergiok. Azkenak Ikasleen Sindikatua ez dela EAJ eta EArekin “fidatzen” aurreratu zuen. “Azken finean, horiek ere eskubiko alderdiak dira eta euskal LOUa egin nahi dute, hemengo dirua kontrolatzeko”. Nolanahi ere, legea egitekoan, “hezkuntzari BPGren [Barne Produktu Gordina] % 7 ematea, beka gehiago, irakasleen lan baldintzak hobetzea eta erakundeek, eta ez enpresa pribatuek, finantziatutako plana” eskatzen die Lakua zein Madrili.


Alexek, berriz, “guztiek hitz egiteko” deia egin dio Iztuetari, “guztion artean Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta soziokulturala posible egingo duen legea egiteko”. Olabideko ikasle gazteek bezala, Alexek eta Sergiok ere gizarteak aldaketa horiei guztiei buruzko datu gutxi dituela uste dute. ISko Sergio Moralek informazioa ematea klase sindikatu eta gurasoen elkarteei dagokiela azpimarratu du. Alex Marañonek aita-amek inplikatu behar dutela uste du, “ez baita nahikoa haurra ikastola batean edo D ereduan matrikulatzea”.

JOSETXO taberna



“ez dago
pintxorik”

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

Euskal Herriko hiru puntutatik abiaturiko **JENDE KATEAK:** **MAIATZAREN 11n (larunbata)**

Antolatzaileak: AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Euskal Konfederazioa, Oinarriak eta Abokatu Euskaldunen Sindikatua

*“Euskararen ofizialtasuna erein”
“Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatu”*

- Nondik-noiz aterako-herrialdekako sailkapena:

*Hendaiko tren geltokian (17.30etan); Lapurdi, Behe Nafarroa, Zuberoa eta Gipuzkoatik.

*Irungo azken errotondan (17.30etan); Gipuzkoatik eta Bizkaitik.

*Endarlatzan (16.30etan); Nafarroa eta Arabatik.

- Ekitaldia non: puntu horien artean dagoen poligono batean

Euskarari dagokion lekua eskuratzeko... Euskarak, Euskal Herriaren eta euskaldunon nortasunaren adierazlerik nagusienak, egun euskal lurralde guztietan ez du dagokion lehentasunezko lekua, euskal hiztunoi egunero hizkuntza eskubideak urratu egiten baitzaizkigu eta honela, gure herrian gure hizkuntzan bizitzea ezinezkoa egiten zaigu... Gure herrian euskaraz bizi ahal izateko eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuak izan daitezen, euskararen arauketa zatitua gainditzea ezinbestekoa deritzogu. Hau da, gure hizkuntzari dagokion eta euskadunon hizkuntza eskubideak babestuko dituen estatus legala da behar duguna. Euskararen lurraldea Euskal Herria izanik, bere arauketa eremuak lur zati berbera beharko du izan. Ez gehiago ez eta gutxiago ere. Euskararen egiazko ofizialtasuna Euskal Herriko zazpi lurraldeetan lortzea euskararen geroa bermatu ahal izateko ezinbesteko urratsa da.

Euskararen alde lanean gabiltzanon aurkako erasoak erantzun baten beharra eskatzen zuen. Erasoaldiaren lekuko larriak baitira helduen euskalduntze eta alfabetatzean lanean diharduen AEK erakundearen aurkako neurri judizialak, euskarazko komunikabideen kriminalizazioa, euskal irakaskuntzaren aurkako eraso mediatiko iraunkorra edota euskararen defentsan ari garenon lana oztopatzeko saioak. Euskararen lurraldean hizkuntza eskubideen berma aldarrikatzea ezinbestekotzat jo genuen, euskal hiztun komunitatean hizkuntza eskubideak urratuta baitaude.

Hiru puntu hauek lotzeko arrazoiak: bakoitza eremu administratibo desberdinean dago eta jende kate hauen bitartez, euskararen lurraldea aldarrikatu ezezik, euskaldun guztion hizkuntza eskubideak bermatuak izan behar dutela aldarrikatu nahi dugu. Horrela, hiru puntu hauek lotuz, horixe da irudikatu nahi duguna.

Ekimenaren ezaugarri nagusiak

- Euskal Herriko lurrarekin “euskararen haritza”ren landaketa.

- Hiru bertsolari ezagunek bina bertso abestuko dute

- Euskaltzale historiko batek Adierazpena irakurriko du. Ekimenaren babesle gisa kirol, kultur eta hezkuntzako pertsona ezagunez gain, euskalgintzako hainbat ordezkari ere egotea da asmoa.

- Kantari batek kantu bat abestuko

- Amaieran 7 suziri jaurtikiko

**Parte hartu zazpi lurraldeetako euskaltzaleon euskararen
aldeko ekimen honetan!!!**

Antolatzaileek trenez zein autobusez joatea eskatzen dute, trafiko arazorik sor ez dadin.

Informazioa: 945261956



Dereduari eutsi!

LEIRE LPZ. DE ABERASTURI
Argazkiak: Edorta Sanz

Hezkuntza polemika iturri amaigabea da Gasteizen. Azken eztabaida publikoa guraso talde batek D ereduari matrikulatutako haurrak B eredura pasatzen dituztela salatzean sortu zen. Salaketa aurrematrikulazio kanpainaren erdian egin zen eta hilabete honetan zehar datorren urterako udal haur eskolen behin-betiko matrikulazio datuak atarako direnez, adi egoteko eskatu die lkas eta Jolas plataformak seme-alabak euskaraz hezitzeko hautua egin duten gurasoei, eta "D ereduari eutsi!".

Alfonso Alonso alkateak duela gutxi aitortu zuen Gasteizko Udal Gobernuaren boterea hartzean iragarritako "eredu elebidun bakarra" jartzeko ideia erabat baztertuta duela dagoeneko. Hala ere, horrek ez du esan nahi euskarazko hezkuntzak Udalaren laguntza jasotzen duenik eta iazko ikasturtean euskarazko eredu elebakarrean matrikulatutako 100 bat haur B eredura pasatu zituen Udalak, D ereduaren aldeko guraso taldeak salatutakoaren arabera.

STEE-EILAS hezkuntza sindikatuko Endika Rodriguezek azaldu duenez, Gasteizko udal haur eskolek daukaten "egitura itxiak" horrelako aldaketa eta irregulartasunak gertatzea posible egin du. Izan ere, matrikulazio datu guztiak jaso eta gero, eskoletako

zuzendaritzak taldeak egiten ditu gehiengoaren eskakizunaren arabera, eta gehiengoak aukeratutakoaz kanpo geratzen dena beste eredu batera sartzen dute. "20 hurrekin gela bat osatu behar bada eta 11k B eredu eskatu badute eta 9k D eredu, guztiekin B ereduko gela bat sortzen dute eta listo", laburbildu du haur eskola batean irakaslea eta LABkidea den Marianek.

Taldeak eginda, eskatu ereduari lekurik ez badago bi aukera daude: beste hizkuntz eredu batean sartu edo beste eskola batera eraman umea. Gasteizko udal haur eskolen kasuan aukeratu ahal izateko behar den informazioa lortzeko "borrokatu" behar da. Guraso eta eskoletako langileek salatu dutenez, gurasoei ez zaie behar beste informaziorik ematen, "eta gertatu izan da, haurra D ereduari daukatzula pentsatu eta erdaraz aritzen direla konturatu", azaldu du Blanca Martinez de San Vicentek, D ereduaren aldeko gurasoen taldeko kideak.

Aukera bakarra

Gurasoen aukeraketa bideratzean "tranpa" bat egiten dela salatu du Marianek: "matrikula egiten denean hizkuntza eredu bi hautatu behar dira (B eta D; A eta B), eta horrela oso zaila da batean edo bestean lekurik ez izatea". Horregatik, eta datozen urteetara begira, haurren matrikulazioa egiteara joatean hizkuntza eredu bakarra

aukeratzea aholkatzen du Marianek, eta ez bi, eskatzen badiete ere, haurra nahi ez den taldean sartuz gero, Udaletxean protestatu ahal izateko.

Gehiengoaren nahiaren arabera jokatzearen teoria ondo dago, baina praktikara eramanda, "sistema horrek ez du gurasoen nahia eta aukera errespetatzen", Blanca Martinez de San Vicentek salatu duenez. Haurra zentro berean, baina beste eredu batean izatea bainoago inguruko beste haur eskola batera eraman nahi duzun besterik ez dutela galdetzen gaineratu du.

"20 hurrekin gela bat osatu behar bada eta 11k B eredu eskatu badute eta 9k D eredu, guztiekin B ereduko gela bat sortzen dute eta listo"

Hau da, dauden lekuak bete arte tokia izango duzula ziurtatzen du Udalak, baina ez aukeratu duzun ereduari ikasi ahal izango duela.

Antolaketa arazo bezala definitu denak udal haur eskolen funtzionatzeko moduan izan dezaken oinarria, "Alde hezitzailea baino zaintza hutsa

“Gertatu izan da, haurra D ereduan daukazula pen-tsatu eta erdaraz aritzen direla konturatu”

baloratzen delako gehiago”, asistentziatzako (ordutegiak,...) ikuspegiari oinarrituz eta alde pedagogikoa ahaztuz.

Etokizunerako aukerak

D ereduaren aldeko guraso taldeak Udalaren jarrera salatu zuenean, udal haur eskolak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren barruan sartzea eskatu zuten, ereduaren eskaera hobeto errespetatuko zelakoan. Aldarrikapen horrekin bat egiten du Endika Rodriguezek, “egoera alegala aldatzean beste edozein eskolak bezala funtzionatu beharko lukete eta ereduaren aukeraketa onartu”. Blanca Martinez de San Vicentek, berriz, “udal eskolak izatea ondo dago onak izatekotan”, esan du. Bere ustez “haurraren hez-

Azken bost urteetako izena ematearen eboluzioa 0-3 urte. Hezkuntza Publikoa. Araba

	A eredia	B eredia	D eredia	Guztira
97-98	25, 25%	38, 74%	36%	2.075
98-99	23, 17%	43, 12%	33, 69%	2.247
99-00	17, 98%	47, 88%	34, 13%	2.247
00-01	17, 25%	45, 76%	36, 98%	2.255
01-02	17, 24%	45, 16%	37, 58%	3.267

Arabian dagoen joera Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenaren oso antzekoa da. A ereduak behera egiten du etengabe (aurten ez dago eredu erdalduneko gelarik Gasteizen), B gutxi gora-behera orain dagoen zenbakietan mantendu eta Dk gora egiten duten bitartean.

kuntza ibilbide osoa definituko duen eskola hezitzailearen oinarriak jarriko dituen eskola mapa da behar duguna”.

Puntu batekin bat egiten dute gutziek, eskoletako irakasle eta langileen lan ona eskertzean. Gurasoek derrigorrezko hezkuntzan sartzeko txikienei ematen dieten prestakuntza goraipatzen dute, eta Marian LABkidea eta Zuriñe STEE-EILASeko irakasleak beraien lankide gehienek hizkuntz

perfilak legeak agindu bezala kunplitzen dituztela ziurtatu dute. “Lanean hasterako gehienok perfila geneukan”, azaldu du Zuriñek, eta Marianek gaineratu du “45 urte gorako gutxi batzuk” gelditzen direla euskaldundu gabe, eta legearen arabera ezin zaie behartu. Horiek ordutegi murriztua dute, jangeletan aritzen dira, edo beste irakasle bati laguntzen lan egiten dute B ereduko klaseetan, baina ez dute gela bateko ardura izan ohi.



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Edurne Begiristain
Argazkiak: Edorta Sanz

Gure herrialdean dagoen prostituzioaz hainbat datu eman baino lehen, munduko lanbiderik zaharrenak gure gizartean duen lekua eta prostituten inguruan dugun iritzia jakitea ezinbestekoa da. Betidanik, prostituzioan jardun duten emakumeak ghettoetan bizi izan dira, alegia, "auzo txinatarrak" deitutako guneetan, guztiak elkarrekin eta baztertu dituen gizartetik urrun. Alabaina, mesprezatu dituen gizarte berberak beharrezkotzat jo ditu aldi berean. Ghettizazio hori desagertuz joan da denboraren poderioz, eta prostitutak hirietan sakabanatu dira, auzokideen kekek areagotuz. Izan ere, biztanleek prostitutak egotea onartu onartzen dute, baina beren etxetik urrun baldin badaude. Prostitutetiko jarrera bikoitza horrek segurtasun eza eta gaitzespen sententzia sortarazten die lanbide hori praktikatzen duten emakumeei.

Prostituzioaren mundua bazterketa sozialaren baitan dagoen zerbait da

gehienontzat, eta iritzi hori izatea hainbat faktorek eragiten dute: bate-tik, gorputzarekin zerikusia duten lanbideak gaizki ikusiak daudelako gure gizartean (modeloen munduan izan ezik), eta modu horretan prostitutak eta strip-teaseko dantzariak, esaterako, bigarren mailako emakumetzat jotzen dira oro har. Beste faktore bat erlijioa da. Mendebaldean nagusi izan diren sinesmen kristauen arabera, sexua tabua izan da, eta ezkon-tzatik kanpoko sexu harremanak gaizki ikusita daude, horrela, prostituzioa postulatu katolikoetatik at geratzen da.

Bestalde, prostituzioaren egoera legala jarduera marjinala izatearekin estuki lotuta dago, izan ere, prostituzioa ez da legez kanpoko, eta ez dago erregulatuta ezta legalizatuta ere.

Gorantz doan jarduera

Prostituzioarekiko jarrera ezkorra mantentzen bada ere, modu, tipologia eta zerbitzuen aldetik nabarmen aldatu dela esan daiteke. Etengabe



gora eta aldatuz doan jarduera da, batik bat bi datu kontuan hartuta: gero eta emakume gehiagok praktikatzen dute, gehienak atzeritarrak; eta jarduteko lekuak aldatzen ari dira, hiri inguruetakoko zentro eta pisuak nagusituz. Euskal Autonomia Erkidegoko prostituzioa praktikatzera datozen emakumeen kopuruak nabarmen egin du gora 1995az geroztik. Azken hamar urteetan, Hegoamerikatik etorritako emaku-

ezkutuko lanbidea

Emakumeen prostituzioa gure gizartean dagoen errealitate ezkutua bezain konplexua da. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan aritzen diren prostituten profila oso bertsua da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan: atzerritarra (% 80-% 90), Hegoamerika eta Karibetik etorritakoa, gaztea eta ezkongabea baina seme-alabak dituen, eta Espainiar Estatura, Euskal Herrira datorrena dirua modu azkarrean irabazteko asmoz. Erreportaje honetan prostituzioaren mundura hurbiltzen saiatu gara.



meak ugaritzeaz gain, Errusiatik eta Poloniatik ere emakume ugari heldu dira gure herrira, euren herrialdeetako egoera politiko eta ekonomiko larritik ihesean.

Araba. Gasteiz

Emakumearen Euskal Erakundeak, Emakundek, duela gutxi egindako txosten baten arabera, EAEn hiru tokitan praktikatzen da prostituzioa: kalean, klubetan eta pisuetan.

DOLORES JULIANO (antropologo bartzelonarra):

“Prostituta etorkinak euren familiako sostengu ekonomikoak dira”

Dolores Juliano antropologo bartzelonarra, prostituzioa eta etorkinen inguruko aditu ezaguna da, eta duela gutxi Gasteizko Hikaateneon izan zen “Prostituzioa eta emigrazioa” izenburuko hitzaldia eskainiz. Haren ustez, prostituzioa ez da fenomeno isolatu bat, ezta aparteko mundu bat ere, “emakumeak gizartearen barruan duen egoeraren adierazle argi bat baizik”. Prostituzioaren mundura aurreiritzirik gabe hurbiltzea egokia litzatekeela uste du Julianok, “izan ere horrek ahalbidetuko liguke jakitea zeintzuk diren ustez berdinketan oinarritutako gizarte honetan sexuen arteko botere harremanak”. Julianoren aburuz, beharrezkoa izango litzateke sexuaren munduan lan egiten duten emakumeen eskubide eta askatasunak onartzea eta horrela, gizartean zilegitasun osoz bizi ahal izatea. Dolores Julianok ongi asko ezagutzen du emakume etorkinen errealitatea eta Europara prostituzioa praktikatzera datozen gehienak, engainatuak eta behartuak datozela dio. “Prostituzioa praktikatzen duten emakume etorkinen gehiengoak euren familien sostengu ekonomikoak dira”, azaltzen du, gehienak “legitimatzen” dituzten bikoterik gabe daude, baina seme-alabak dituzte, eta horrek esan nahi du “euren jatorrizko herrietan jada estigmatizatuak daudela”.



Arabian, guztira, berrehun emakume aritzen dira lanbide honetan, eta horiei gehitu behar zaizkie telefono mugikorren bidez lan egiten dutenak (baina zaila da oso jardura hori kontrolatzea). Aipatzekoa da Arabian 10.000 biztanleko dauden prostituten kopurua Bizkaian eta Gipuzkoan baino nabarmen altuagoa dela (Arabian 12,1 emakume / 10.000 biztanleko, Bizkaian 7,8, eta Gipuzkoan 7,9).

Kalean diharduten Estatuko emakumeak ia desagertu direla esan daiteke eta kolonbiarrek, marokoiarrek eta dominikarrek euren lekua hartu dute. Emakunderen arabera, Gasteizen 30 emakume inguru daude kalean lan egiten (Bilbon askoz gehiago daude eta Donostian ez dago bat ere). 'Nueva Fuera' eta 'Nueva Dentro' (Kanpokale Berria eta Barnekale Berria) kaleak izan dira prostituten gune nagusiak, baina iaztik aitzin Liberia eta Sierra Leonatik etorritako emakume asko heldu dira gure hirira prostituta

gisa. Arriagako parkea, Forondako Atea kalea eta Artapadurako bidegurutzea hautatu dituzte lan egiteko, euren zerbitzuak kotxeetan eskainiz. Gaueko hamaikak aldera hasi eta goizeko ordu txikiak arte egoten dira lanean, eta zerbitzu bakoitzak 18 eta 30 euro bitarteko prezioa du.

Kalean aritzen diren prostitutez gain, klubetan egiten dutenak daude. Aipatzekoa da Gasteizen dauden pisu eta klubek kopurua oso txikia dela, hiriburutik kanpoko klubak dezente gehiago diren bitartean. Gasteizen 102 emakume daude klubetan lan egiten, hots, hiriko prostituten % 23. Azkenik, prostituzioa pisuetan praktikatzen duten emakumeak daude (lan mota hori egunkarietan eta Interneten iragartzen da). Gasteizen modu horretan lan egiten duten emakumeak Bilbon eta Donostian baino gutxiago dira. Orora zortzi pisu baino ez dira iragartzen (30 emakume), osotasunaren % 9, hain justu ere.



eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

“Abstinentziako politika oso ondo egon daiteke kontsumitzen ez duten pertsonentzat, baina politikoez ezin diote errealitateari uko egin”



“Droga hartzaileak beti gazteak direla diogu baina topiko horren kontra gazteok helduengandik ikasi dugunarekin egiten dugu topo; gurasoak tabernan poteatzen ari direla euren zigarroen kea arnastuz, buruko mina dutenean aspirina eta lasaitzeko lasaigarriak hartzen dituztela ikusiz hazi baikara, hortaz, gure egungo gizarte honetan gutxi-gutxi batzuk besterik ez dira drogak hartzen ez dituztenak”, hauxe da SONIA BERMEJOK eginiko burutapen bat, eta ez pentsa bakarra denik, zeren eta hogeita sei urteko Zuzenbiden lizentziatua den honek drogen inguru-

ruan gauzak argi eta garbi ikusten ditu.

Gasteiztar hau AI LAKET taldearen koordinatzaile-etako bat dugu, “gu geu gazte eta kontsumitzaile garen heinean gainontzeko erabil-tzaileei eman diezazkiegun aholkuak erabat erabilgarriak eta beharrezkoak dira eta horretan gabiltza”.

Josune Velez de Mendizabal

Argazkiak: Edorta Sanz eta ‘El Mariguano’



GIZARTEAREN IRITZIA:

Soniak antzematen duenaren arabera, jendeak oro har Ai Laket bezalako talde aholkulariak babestu eta onartuko lituzke, baina komunikabideek desinformazioaren erruz beldurra barreiatzen dute. "Hogeita hamabost urtetik beherako jendeak oso barneratuta dauka droga konsumitzen dela eta horregatik ez dira ikaratuko, agian jende nagusiak urrunago ikusten du eta zailago dute ulertzea, gainera heroinaren txiparekin funtzionatzen jarraitzen dute. Dena den, komunikabideen trikimailuak askotan kontrako efektua lortu du eta azkenean jendeak debekatuta dagoena frogatzen bukatzen du".

DROGAREN ALDE ONAK ETA TXARRAK?

Galdera honi erantzuteko Soniak lehenik eta behin droga kontzeptua argitu beharra dagoela azpimarratzen du: "kafea, tabakoa, alkohola eta medikamentu guztiak daude kontzeptu honen barne, aspirinak, etab, baita LSD, anfetak, herolna, bongiak... Gauzak horrela, nik uste dut droga bakoitzak bere ondorioak dituela. Bestetik, drogak 'ondo hartuta' asko lagundu dezaketela pentsatzen dut, komunikaziotik hasita drogek zeure burua ezagutzen laguntzen dute, kontzientzia egoera ezberdinen aurrean egotera, kontzientziaren aldakuntzak, errealitatearen beste ikuspuntu bat ikusi, estimulatu eta erlajatu ere egiten dute, baita sendatu ere, ...noski, aspirina batek sendatzeko gaitasuna dauka baina hamar hartuz gero gaixotuko zara...".

ANEKDOTA:

Analisiak egiteko orduan hainbat gauza bitxi gertatu zaizkigu, izan ere, jendeak oraindik ez du gure funtzionamendua ezagutzen eta, orduan, moskeatuta eta konfiantza ezarekin hurbiltzen da. Beti dago paranoikoren bat pentsatzen duena "maderoak" edo "txapak" garela, eta bospasei bider galdetzen duena ezkutuko kamararik dugun edota polizia zain dagoen sarekada egiteko prest. Goizeko ordu bietatik aurrera analisiak ez egitea erabaki dugu; honen arrazoia ordu horietan jende asko hitz egiteko gogo gehiegirekin datorrela eta, informatu beharrean, drogen inguruan duten esperientzia kontatzera datozela besterik ez da".

ZER DA AI LAKET?

Droga erabiltzaileek osatutako arrisku murrizketen aldeko elkarte da. Drogek sor ditzaketen arazoi buruz aurrez abisatzeaz gain, aholkuak ere ematen ditu talde honek. Euren eskaintza komunikabideek orain arte landu duten abstinentsia bidearen aurrean irtenbide erreala aurkitzea da. Estatu mailan Energy Control (drogen legalizazioa lortzeko asmoz gero eta talde gehiago sortzea bilatzen du) dagoen bezala, AI LAKET dugu Euskal Herrian ekintza mota hauek garatzen dituen lehen talde droga kontsumitzaile.

NOLA LAGUNDU?

Espazio handiko karpa bat osatzen dute, bertan mahaiak daude, "baina jendeak intimitatea izan dezan eta guregana hurbil daidin errazteko asmoz mahaien artean leku nabarmena dago, hasieran lotsatuta bezala sartzen baitira; guk hartuko duten edo hartu duten droga analizatzen dugu".

ZEINTZUK OSATZEN DUTE TALDEA?

Ai Laket-en adar askotako jendea dago, adibidez, medikuak, psikologoak, abokatuak, giza hezitzaileak... Soniaren kasuan Zuzenbide ikasi eta egun drogodependentsia gaiaren inguruko ikastaroa ari da jasotzen. Honetaz gain, taldean dagoen kide orok -oro har hogeit bat- barne ikastaroa jaso eta osasun agente edo bitartekari titulua eskuratu dute.

Iaz Hazkunderekin batera eta Eusko Jaurlaritzak finantziatuta, programa piloto bat egin zuten Euskal Herriko hainbat diskoteketan informazioa eskainiz

EGITASMOAK?

Orain arte herriz herri karpa ezarri badute ere etorkizun baterako autokarabana edo furgoneta bat ahalbidetzea lortu nahi dute, "Holandan aurrera eraman da eta erraztasun gehiago eskaintzen du". Horretaz gain, Ai Laket taldeak aholkularitza juridikoa eskaini nahi die kontsumitzaileei, "hala nola, inoiz txina batekin harrapatzen bazaituzte zure eskubideak eta aukerak zeintzuk diren jakin dezazun; jende askok errekurtsioa aurkeztean ez du pentsatzen eta erosoena egiten du, ordaindu".

ERAKUNDEEN JARRERA?

Soniaren aburuz Drogodependentzia Sailean Ezker Batua egoteak asko lagundu du drogen politikari dagokionez. "Eurek arrisku murrizketen alde apustu handia egin dute eta ikusi den bezala honek emaitza positiboak lortzen ditu. Abstinentziako politika oso ondo egon daiteke kontsumitzen ez duten pertsonentzat baina politikok ezin diote errealitateari uko egin; neurrigabekeria dago gazte nahiz helduengan eta, hortaz, orain arteko ikusteko modua aldatzean datza erantzuna... Kontsumitzaile zaren heinean egungo kanpainak ez dira heltzen eta orduan norbaitek drogek izan ditzaketen arriskuen berri eman beharko dizu".

GAUZATUTAKO EKINTZAK?

Taldeak oraindik aurkezpen formala izan ez badu ere hainbat ekimen gauzatu ditu dagoeneko. Hala nola, iaz Hazkunderekin batera eta Eusko Jaurlaritzak finantziatuta, programa piloto bat egin zuten Euskal Herriko hainbat diskoteketan informazioa eskainiz. Ai Laket-ek eginiko irteeretan Non Stop, Itzela, Jazz Berri, Zirkulo eta Pravda (Gasteiz) diskotekak zeuden, eta Bermeo, Basauri eta Elgoibar herrietako festetan ere izan ziren. "Zerrenda askoz ere zabalagoa zen baina diskoteken jabeen kolaborazio ezagatik ezin izan zen gauzatu; Udalek eta Drogodependentzia arloko teknikariek, berriz, bertan egotea nahi izan zuten", azaltzen du Soniak.

ETORKIZUNA?

"Ez dut uste egungo politikak -'Ez esan' kanpaina- luzera joko duenik, urteak behar dira hau dena era erreal batean lantzeko baina arrakasta izaten bukatuko duela deritzot..., arrisku murrizketen aldeko politika egon izan balitz dagoeneko Malagan ez zatekeen horrelakorik gertatuko, jendeak jakin behar du kontsumitzen duena eta leku publikoak egon behar dira horretarako".

"Kontsumitzaile zaren heinean egungo kanpainak ez dira heltzen eta orduan norbaitek drogek izan ditzaketen arriskuen berri eman beharko dizu"

Arrisku murrizketen aldeko politika egon izan balitz dagoeneko Malagan ez zatekeen horrelakorik gertatuko

2002ko martxoaren 16a. 4 eguneko zubia eta eguraldiaren iragarpen bikaina. Betaurreko beltzak, pare bat kamiseta, lozakua, koaderno, bolaluma eta Bortzirietako mapa. Zein ote da asteburuko plana? Gasteizko AEKko euskaltegietan galdera honek erantzun azkarra izango luke: barnetegi berezia. Izan ere, martxoaren 16tik 19ra udako barnetegien neba-arreba-ahizpa-anaia txikia antolatu dute Gasteizko AEKkoek. Eta ez dira makalak izan San Josek Arantza aldean ikusitakoak!

Testua eta argazkiak: Gasteizko AEK

Udako barnetegiak ikasleen euskalduntze prozesuan duten garrantzia gauza jakina da, eta Gasteizko AEKko irakasleek ikastaro hauek indartzeko asmoz, iaz antolatu zuten lehenengo aldiz Arbonan 3 eguneko barnetegi berezia, eta aurten Arantzan izan du jarraipena, gainera egun bat gehiago izaki. "Ikasleek udako barnetegi berri izatea nahi genuen, zer egiten den, non izaten diren, eta batez ere zenbat ikasten den", adierazi digu Fernando Sopelanak, Gasteizko AEKko koordinatzaileak. "Aurten gainera Arantzan egin dugu, udan ere bertan egoten delako barnetegi, eta iazkoak baino arrakasta handiagoa izan du".



Iaz 40 bat ikasle eta 10 irakasle egon zen Arbonan. Aurten, berriz, 70 ikasle eta 13 irakasle joan dira Arantza aldera. Ikasleak hiru taldetan banatu dira: behe, erdi, eta goi urratsetakoak. Klaseak udako barnetegietan bezalakoak izan dira; lau ordu goizean eta bi arratsaldean. Eta klaseak bukatu ondoren, tailerra. Aurten aukera handia izan dute ikasleek: txalaparta, aerobik, antzerkia, bertso-larritza, rol-jokoak, dantza eta katala-

na. Hauek ofizialak; ez ofizialen artean parranda, kantua, katxondeoa, eta "harremak". "Ikasleek oso gustura hartzen dute parte tailerretan, normalean egin ezin ditzaketen gauzak ikasteko aukera izaten dute, edo haiek irakasle izaten dira". Txangoa ere ez da falta izan. Amaiur, Zugarramurdi eta Etxalar herriak ezagutu dituzte, eta Euskal Herriko historian izan duten garrantzia bertatik bertara jakin ahal izan dute, batzuk larunbateko parranda taileraren ondorioz ahul xamar bazeuden ere.

Baina dudarik gabe onena 24 orduz euskaraz aritzeko aukera izan da, bai euren artean, eta baita bertako euskaldunekin ere, hori baita ikasleen betiko kezka, euskaltegitik kanpora euskaraz mintzatzeko zailtasuna.

Barnetegi BEREZIA





Arantzako aterpea

Arantzako aterpea AEKko barnetegietako goitza finkoetako bat da. Bortzirietako mendialdeko herri txiki honetan euskararen aldeko apustu indartsua egin dute, eta herritarrek oso gustura hartzen dute udaro euskararen munduan murgildu nahi duten ikasle-uholdea. Aterpeko langileek, beste herritarrek bezalaxe, harreman berezia izan ohi dute ikasleekin, herriari buruzko azalpenak emateko, txangoak antolatzeko, inkestei erantzuteko... Eta bereziki aipagarriak dira jatorduak, zorionak sukaldariei!

Ikasleak berriketan

• Maider Goikoetxea

(Amaiur euskaltegiko Egako ikaslea) - 19 urte

Oso ondo pasatu dut Arantzan. Nire ustez, barnetegi berezian nahiko ikasten da, nahiz eta denbora gutxi izan. Lau egunetan ikasi egiten bada, 15 egunetan askoz ere gehiago. Bai, udan matrikulatuko naiz barnetegian, izan ere, asko gustatu zait esperientzia. Gainera, herria oso polita eta lasaia da. Hiru adjektibotan deskribatu beharko banu barnetegi, gogorra, dibertigarria eta osasuntsua izan dela esango nuke.

• Raul Maestu

(Amaiur euskaltegiko 7. Urratseko ikaslea) - 24 urte

Hagitz ongi pasatu dut Arantzan. Motza izan da, baina helburua ona da. Aurkezteko ikasleei barnetegi zer den oso ideia ona da. Gainera, asko ikasten da, nire helburu nagusia mintza praktika da eta hau primeran lantzen dela uste dut. Bai, udan matrikulatuko naiz. Egia esan, asko gustatzen zait barnetegietako giroa. Arantzako jendea oso jatorra da eta tokia polita eta lasaia da. Hiru adjektibotan deskribatu beharko banu barnetegi berezi hau, garrantzitsua, dibertigarria eta jatorra izan dela esango nuke.

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi



PITILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN

“Hatz-mamiarekin mundua gelditu daiteke”

“Corazón de Tango” eta “La chica del Batzoki” denon ahotan egotearen ‘erruduna’ da Francis Diez, Doctor Deseo taldeko abeslaria. Kantu intimoz betetako zazpi-garren diskoa kaleratu berri dutela eta Gasteiza datozela aprobetxatuz, Francis elkarriketa egin diogu.



Edurne Begiristain

Argazkiak: GOR disketxea

- “SUSPIRA... Y CONSPIRA” DA DOCTOR DESEOREN AZKEN DISKOA. NOLA DEFINITUKO ZENUKE?

Soinu aldetik egin dugun diskorik orekatuena dela esango nuke, eta oinarrian bilaketa lana bezala definituko nuke. Letrei dagokienez, diskorik intimoena da eta barruan bilatzen saiatzen da. Gitarren eta teklatuaren soinuaren arteko oreka handiagoa dago, akaso aurreko diskoetan ez zegoena, eta honetan lortu duguna.

- ZER ADIERAZI NAHI IZAN DUZUE IZENBURUAREKIN?

Emakumearen sexualitateari arreta jarri diogu, izan ere, hori baita mundu madarikatu hau aldatzeko alderik interesgarriena. “Suspira... y conspira” izeneko kanta bat dago diskoan eta adierazi nahi izan duguna da hatz-mamiarekin mundua geldi daitekeela.

- IKUSLEGOA PROBOKATZEA ATSEGIN AL DUZU?

Egia esan sekula ez dut probokazio gisa planteatu... Egiten dudana intentsitate handiz bizi egiten dut, besterik gabe. Horrek probokatzen duela? Bada... primeran! Baina ez da nire asmoa.

- DISKO GEHIENETAN EUSKARAZKO KANTA BAT DUZUE...

Azken lanean “Au revoir, nire maitia” abestia euskaraz da. Gure asmoa da euskarari gure babesa adieraztea, eta taldea erdal-hiztuna izaki, disko guztietan euskarazko abesti bat sartzeak aukera ematen digu euskarazko errepertorioa izateko.

- ZER ESANAHI DU ZURETZAT JUSTIZIA HITZAK?

Faltan dagoen zerbait da, ez bakarrik Euskal Herrian, mundu osoan baizik. Bilatuena da. Non dago??

- DEMOKRAZIAK?

Demokrazia egun ulertzen den moduan hartuta, ni ez naizela demokrata esan behar dut. Existitzen den gauzarik kontrolatue-na da.

- BELDURRAK?

Printzipioz babestu behar gaituen zerbait da, beldurrak babesteko funtzioa baitauka. Aitzitik, mundu honetan beldurrak gañditzen gaitu, geldiarazten gaitu, mugitzea ekiditen digu, izugarri banakatzen gaitu.

- ZORIONTASUNAK?

Kar, kar, kar!! (barreak)... Normalean ez dut hitz hori erabiltzen, berriegia da niretzat. Zoriontasuna azenario moduko zerbait da, aurrean jartzen digutena eta sekula eskratzen ez duguna. Zoriontasunak ez nau arduratzen, bai ordea bizitza datorren moduan bizitzeak, ezerk ihes egin gabe.

- KOMUNIKAZIOAK?

Hori bai, oinarrizkoa da. Sentsualitatearekin, sexuarekin... harremana dauka. Agian gauzarik garrantzitsuenetariko bat da. Estatuak komunikazio bideak nahiko kontrolatuak eta baldintzatuak dituzenez, beharrezkoa da komunikazio bide berriak bilatzea.

- INTERNETEK?

Saski-naski bat da, nahiz eta askatasun gehiago dagoela eman. Baina ez dugu ahaztu behar Internet ejerzito amerikarraren barruko sareetatik sortu zela.

- MAITASUNAK?

Nahiago dut sexuaz hitz egitea, zentzu zabalago batean. Ez dut hitz hori maiz erabiltzen, eduki gutxi izaten duten hitz potoloak baino ez dira. Nahiago ditut adiskidetasuna eta sexua.

- DROGEK?

Beste kultura asko drogekin bizi izan diren moduan, guk ere egin beharko dugu. Noski, legalizazioaren alde nago. Baina egia da drogekin bizitzeak esan nahi duela haiekiko kultura bat izan beharra dagoela, behar adina inteligentzia behar dela ongi erabiltzeko. Tentu handiz ibili behar da gai honekin.

- GAZTEAK?

Nahikoa zaila den adin tartea da, baina nik jada ez dut gogoratzen... (barreak).



BIRA - MAIATZA

10 eta 11- Bilboko Kafe Antzokian

18- Gasteizko Azkenan

31- Donostiako Jareño aretoan

adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35

HERRI URRATS,

Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko festa,
Lapurdikoa Senpere herrian
Antolatzailea: Seaska
Maiatzaren 12an

Adi **PARRAL TABERNA**KO
MAIATZEKO AGENDARI

Astertero 20.30etan:
Kontzertuak; Antzerkia, Poesia, Ipuinak...

• 28an:
KULTUR ERROTA-02
(GEU elkartearen eskutik):

RAMON AGIRRE: **'ONDO ESAN BEHARKO'**
(*espektakulua, antzerkia, umorea, musika*)
ORDUA: 20.30etan

hikaateneo



adi **HKAATENE**Oko
MAIATZEKO agendari!!!
(Gune soziopolitikokulturala)
Pinto kalea, 13
(lehenago Zuloa liburudenda)
Ekitaldiak hilero: errezital-
diak, hitzaldiak, bideo ema-
naldiak, mintegiak, mahain-
guruak, jokoak, erakusketak, Internet, aldizka-
riak, Café, liburuak...

Astelehenerik ostiralera,
18.00etatik 22.00etara

Maiatzaren 16an, osteguna, 20.00etan,
Genero eta Sexualitateari buruzko Mintegi eta
Hitzaldien barruan: "Transexualitatea edo trans-
generoa?".

IGARTZASARIA-2002-03-15 V. LITERATUR SORKUNTZAKO BEKA

IDAZLE BERRIENTZAT

Epea: uztailaren 1era arte

Informazioa: Beasaingo Udala. Euskara Zerbitzua.

eguneko

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

IRUSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 · GASTEIZ



Etorkizuna geure esku!

UDABERRIA / PRIMAVERA 2002

GAUEKOAK

del 5 de abril al 1 de junio,
viernes y sábados NOCHE,
de 10 a 2

apirilaren 5tik ekainaren 1era
ostiral eta larunbatero GAUEAN,
10etatik 2etara

**GAUEKOAK-UDABERRIA:**

ekainaren 1era arte, gaueko 10.00etatik 2etara
"gaua gozatu"

Antzertia, karaokea, Victor Celada Trío, kami-
setak eta bisuteria, larrugintza eta Henna, zir-
kuaren gaua, jolasgunea, akordeoi joleak,
Txuma Murugarren, izotz diskoteka, gazte
kluba, asexora zaitez, fonoteka, ziber tokia,
atrakzioak, gomin, rappel, aerogiro, spinning
star, literatur errezitala, Dank, Skalariak, Ekon,
Koldo Amestoy ipuin kontalaria... Aldabetik
harantz!



Ongi etorri, Ondarruko

KAFE ANTZOKIA!!!

Zenbat Gara elkartearen eskutik.

946834141

info@kafeantzokia.com

PEDRO DE ATARRABIA XIV. LITERATUR SARIKETA

Kontakizun laburrak / Epea: irailaren 27a

Antolatzailea:

Atarrabiako

Udaleko Kultura

Zerbitzua

Tel.: 948332659 /

ccvillava@cin.es



ANITURRI INSTITUTUA SALVATIERRA-AGURAIN

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. D eta A ereduak.

**MAKINERIA ETA LINEA-EROABIDEEN INSTALAZIO
ETA MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA.**

Goi Mailako Heziketa Zikloa. D eta A ereduak.

MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA.

- HOBETUZek homologatutako ikastetxea.
- IKASLAN era elkartutako ikastetxea.
- LANGAIren ikastetxe laguntzailea.

**Aurrematrikula:
Ekainaren 3tik 12ra.**

Aniturri BHI.
Galzar, 4. Agurain. - Tf: 945 300400.
E.mail: 010046aa@hezkuntza.net.

TINK



UF! UF!
ETXEAN NAGO
BERRIRO.



EZ DA
MADRILEKO EPAILE
FAMATU BATI IDEIAK
EMATEAGATIK,



BAINA NORBAITEK
PENTSATU AL DU,
NONDIK ATERATZEN DEN
FINANTZIAZIOA...



...EUSKALDUNOK
IZATEN EUSKALDUNAK
JARRAITZEKO?

Logos and papers flying around the man include: EUSKALDUNOK, EUSKALDUNAK, SARRI, ixuna, aek, egunkaria, ZOKETA, BONO LAGUNTZA, and GEU.

EUSKALDUNON

GIDA

KOMERTZIALA



01

Euskaldunon
Egunkaria

LASTER 2002koa

KALEAN

ARMENTIA IKASTOLA



MAIATZAREN

9an,


OSTEGUNA:



MIKEL URDANGARINen

kontzertua

Principal antzokian - 20.30 etan
BAR PUERTO eta ARABA EUSKARAZeko
KANTAREN AURKEZPENA



salneurria: 9 €

Geu aldizkaria eta Geu Elkarteak

5 sarrera oparitzen dituzte
(Harpidedun eta bazkideentzat)

LAGUNTZAILEAK

